

Jose Mari Anzumendi

HIK HASIKO KIDEA

Hernaniko Kulturola

Irudikatzen al duzu irakurle, zure herrian edo auzoan, kultura euskaraz garatuko lukeen gune fisikoa, sormenerako leku izango litzatekeena, kudeaketa parte-hartzailea izan eta prozesu osoa modu hezitzailean bideratuko lukeena?

Amestea ederra da, ezta? Amets hori, gainera, esna dagoen jendearena bada, utopia dela esan liteke. Eta, utopia herritarrek berea egiten badute egingarri izan litekeela ez al zaizu iruditzen?

Hernaniko talde batek abian jarri zuen duela bi urte eta erdi halako ideietan oinarritutako prozesua. Denbora horretan, lau aldiz elkartu da herriko elkarrekin —eus-kara, kultura eta heziketa elkarrekin—. Haiek esandakoa jaso, taldean eztabaidatu, egitasmoari forma berria eman eta berriro partekatzea joan dira haiekin. Horrez gain, herriko alderdi guztiei asmoa aurkeztu diete, eta prozesuan parte hartzea gonbidatu dituzte.

Nik neuk, hezkuntza esparrukoa izanik, arlo horri buruz adierazitakoari jarri diot arreta, bereziki. Halakoak agertzen dira taldearen idatzietan:

- Aukera eman behar du taldeek euren formaziorako jarduerak egiteko: tailerrak, ikastaroak...
- Herritarrek hainbat arlotara hurbiltzeko eta probak egiteko balio behar du: tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak, topaketak...
- Baina, ez hori soilik, zenbait diziplinatan ari diren taldeen topaleku ere izan nahi du,



DANI BLANCO

taldeek eta pertsonak elkarrekin gauzak egiteko, esperimentatzeko, elkarlana bultzatzeko...

- Baina ez diziplinen artekoa soilik, baita herrian, gaur egun, elkarrekin bizi garen kulturen eta hizkuntzen artekoa ere, horrela, elkar aberastuz.

- Eta kudeaketa bera ere, arlo hezitzaile horretan kokatu beharko genuke, eta heziketa ildoak kudeaketarekin arlo guztietan eragin beharko luke:

1) Izaera juridikoa finkatzerakoan: Udala —herritarren ordezkariak— eta herritarrek elkarlanean aritzea erraztuko duen izaera juridikoa. Udal taldearen edo Kulturolaren zuzendaritzaren aldaketek ez lukete baldintzatu behar gunearen biziraupena eta bi aldeek arteko elkarlana.

2) Barne araudia gauzatzerakoan: partaide guztien artean proposatua, eztabaidatua eta adostua.

3) Parte-hartzea garatzeko moduan eta metodologian:

a) Errespetuan edota berdintasunean oinarritua.

b) Burujabetzan edota autonomia osoan egindako prozesuan finkatua.

c) Ardura eta erantzukizunean eraikia.

Ezin da jakin herritar guztiena izan nahi duen Kulturolaren egitasmoa zer neurritan gauzatuko den. Hala ere, halako prozesu hezitzailean aritzen den edonorentzat aberatsa izango dela, ziur egon gaitezke. ■

« Ezin jakin guztiena izan nahi duen Kulturolaren egitasmoa gauzatuko den. Halere, halako prozesu hezitzailean aritzen den edonorentzat aberatsa izango da »

TXANDAN

Amatiño

Churchill...



Churchill, Kennedy eta Obama...

Churchillek erabaki zuen, 1911n, Britainiar Itsas Armada ahalguztidunaren oinarritzko erregaia aldatzea, ordurarteke ikatza alboratu eta petrolioaren aldeko apustua eginez. Erabaki hura ez zuen Churchillek hartu Erresuma Batuko ikatza amaitzear zegoelako, Britainiar Inperioak Ekialde Ertaina mendean zuelako baizik. Horretarako sortua zen, 1909an, Anglo Persian Oil Company enpresa.

Ehun urte geroago, Barack Obamak Steven Chu fisikaria (1997ko Nobel Saria) izendatu du Energia

Idazkari, Amerikako Estatu Batuetako ezagutza eta ikerkuntza sare gutia energia berrien garapenaren alde

jarri dezan. Kennedyk bere garaiko belaunaldi osoa ilargiratze bidean mobilizatu zuen bezala, Obamak zientziarik eta teknologiarik aurreratuenak jarri nahi ditu energia iraunkor eta berriztagarrien mesedetan.

Churchillek ez zuen petroliorik estreinako erabili, ez Kennedyk ilargirik aurkitu, ezta Obamak energia berririk asmatu ere. Baina petrolioaren, aeronautikaren zein berriztagarrien historian, nork bere aldea izango du. ■